


HAUR/LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MAILA

2026/2027 IKASTURTEA



KULTURARTEKO HEZKUNTZA MINORRAREN IKASLEAREN GIDA

Koordinatzailea: Joseba Arregi

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. MINORREKO IKASGAIAK ETA IRAKASLEAK.....	3
3. MINORRAREN AURKEZPENA	4
3.1 Minorraren testuingurua	4
3.2 Helburuak	5
3.3 Minorreko ikasgaien deskribapen laburra.....	6
3.3.1 Kulturarteko Hezkuntzarako Baliabideak eta Estrategia Didaktikoak ..	6
3.3.2 Kulturartekotasuna Eskolan.....	7
3.3.3 Kulturartekotasunaren Komunitate Dimentsioa	8
3.3.4 Kultura Arteko Hezkuntzarako Hezkuntza Politikak.....	9
3.3.5 Fundamentos Teóricos de la Educación Intercultural.....	10
3.3.6 Proiektu espezifikoek kudeaketa ikasgaiaren baitan gauzatzen den diziplinarteko lanaren zehaztasunak.....	11
3.4 MINORKULT Jardunaldiak	12

1. SARRERA

Gida honetan, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduetako 4. mailako ikasleentzako Kulturarteko Hezkuntza Minorrari buruzko informazioa eskaintzen da, bere helburuak, testuingurua, irakasleak eta irakasgaiak aurkeztuz. Kulturartekotasunaren inguruko formakuntza honetan zehar, etorkizun hurbileko Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu eta maistrak, egungo desberdintasun sozialak, hala nola, egiturazko arrazakeria eta matxismoa, eta hauekin intersekzioan dauden bestelako desberdintasunak identifikatzeko eta aurre egiteko baliabideak garatuko dituzte. Aipaturiko erronken aurrean, bizikidetza, kulturarteko hezkuntza eta hezkidetza sustatzeko grina eta bideak landuko dituzte.

2. MINORREKO IKASGAIAK ETA IRAKASLEAK

IKASGAIA	IRAKASLEA	EMAILA	BULEGOA
Kulturarteko Hezkuntzarako Baliabideak eta Estrategia Didaktikoak	Joseba Arregi	josebainaki.arregi@ehu.eus	1.2
Kulturartekotasuna Eskolan	Irati Leon	irati.leon@ehu.eus	PDI-02
Kulturartekotasunaren Komunitate Dimentsioa	Saioa Larraza	saioa.larraza@ehu.eus	2.9
Kultura Arteko Hezkuntzarako Hezkuntza Politikak	Naiara Escalante	naiara.escalante@ehu.eus	1.1
Proiektu Espezifikoen Kudeaketa	Igone Palacios	igone.palacios@ehu.eus	B12
Fundamentos Teóricos de la Educación Intercultural	Saioa Larraza	saioa.larraza@ehu.eus	2.9
	Joseba Arregi	josebainaki.arregi@ehu.eus	1.2

3. MINORRAREN AURKEZPENA

3.1 Minorraren testuingurua

XXI. mendeko bigarren hamarkada honetako mundua estatuei, banakoei eta kulturei hainbeste eragiten dien globalizazioaren ondorioa da. Prozesu konplexu eta poliedriko honek era sakon eta bizian bultzatzen du mundu mailako produktuen trukea, ondareen partekatzea eta banakoen joan-etorria.

Globalizazio neoliberalak, oster, homogeneousazioa bilatzen du eredu hegemonikoaren inguruan eta bere eragina politikan, ekonomian, kulturen eta gizartean ikusten da. Gainera, eredu hegemoniko honen atzean egiturazko arrazakeria eta matxismoa dagoela ezin da alde batera utzi. Proiektu bateratzaile honek erronka dakarkie XXI. mendean bizirik jarraitzen duten milaka kultura desberdinei eta, nola ez, kultura horietako pertsonei. Aipaturiko erronka hau hezurmamitu egiten da bereziki giza migrazioen kasuan. Izan ere, mundu mailako arazo bihurtu da eta berdin eragiten die nazio-estatuari zein kultura, talde ala gizabanakoei. Migrazioen arazoien artean gatazkak, giza-eskubideen urraketak, ingurumen hondamendiak edo bizitza hobetzeko asmoz sorturiko abagune ekonomiak ditugu. Beraz, migrazioek estatuei eta hauen baitako erakunde eta hezkuntza sistemei kultur dibertsitatearen erronka planteatzen die, dagoeneko gizarte asko kulturantzunak bihurtu direlako.

Era berean, Europako Batasunaren sistema demokratikoaren oinarrian dauden balioei, legezketasunaren defentsari eta giza eskubideei eragiten die. Are gehiago, hainbat kasutan erronkak krisia eragin duela ikus daiteke, bai Europa mailan, non etorkinenganako politikak gogortzen ari diren, bai eta tokiko hezkuntza sistemari dagokionean. Izan ere, Euskal autonomi Erkidegoko eskola askok segregazioa pairatzen dute, eta bertoko irakaslegoari kulturarteko hezkuntza sustatzeko formakuntza falta zaion. Egoera honi aurre egiteko, eta bizikidetz, kulturartekotasuna eta berdintasunaren alde egiteko, ezinbestekoa da ulertzea arrazakeriaren arazoari heldu behar diogula bai pertsona eta talde guztien giza eskubideak bermatzeko, bai eta sistema demokratikoaren oinarrian dauden balioei, legezketasunaren defentsari eta giza eskubideei heltzeko.

Munduko kulturen balio praktikoari ere erreferentzia egin nahi diogu Minor honetan, Garapen Iraunkorrerako Helburuekin eta 2020-2030 Agendarekin bat eginez. 2015ean UNESCOk proposaturiko Hiritartasun Demokratikorako Hezkuntza Globala marko teoriko moduan hartuz, Garapen Iraunkorraren Helburuak osatuz EHUren 17+1 helburua den Kultura eta Hizkuntza Aniztasuna sustatuko dugu. Era honetan, Garapen Iraunkorra erdiesteko eta munduko ekosistemak babesteko etnoaniztasunak egiten duen ekarpena lehenetsiko dugu (hizkuntz aniztasuna zein ohiko jakinduriaren papera). Halaber, gure Minorrean eskaintzen diren edukiek 1. (pobrezia desagertzea), 3. (osasuna eta ongizatea), 4. (kalitatezko oinarriko hezkuntza), 5. (genero berdintasuna), 10. (desberdintasunak murriztea), 11. (hiri eta komunitate jasangarriak) eta 16. (bakea, justizia eta erakunde sendoak) helburuekin dute lotura zuzena.

Errealitate global honen aurrean, tokian tokiko errealitate bat agertzen da Euskal Herrian. Bertan kulturartekotasuna erdietsi asmoz bizikidetza dugu helburu, eta horretarako bertako hizkuntza gutxitua den euskarak zein euskal kulturak zentralitatea hartzen dute. Berau erdiesteko, eta kultura ugaritasunaren onarpenetik abiatuta, errespetuaren, enpatiaren, berdintasunaren eta bizikidetzaren alde, zein arrazakeriaren eta xenofobiaren kontra, lan egiten da, betiere, balio demokratikoei zein giza eskubideetan oinarritutako justizia sozialari erreparatuz.

3.2 Helburuak

Minor honen helburu nagusia da Haur eta Lehen hezkuntzako irakasleei hasierako formazioa eskaintzea kulturartekotasuna modu aktiboan eraikitzeke gai izan daitezen hezkuntza, gizarte nahiz kultura eremuetan. Kymlickak (2004) dioten moduan, helburua muga etnikoen gainetik elkarrekiko konfiantza, elkar ulertzea, elkartasuna eta balio komuna oinarri dituen proiektu sendo eta trinkoa eraikitzea da. Honen harira, etorkizuneko irakasleak gai izango dira kulturarteko hezkuntza demokratikoa gauzatzeko. Ahalegin honetan, estatu, nazio eta herrien eta kulturen artean dagoen elkarmendekotasuna gertakizun positibo moduan ulertu behar da. Era berean, mundu mailako politikan bakoitzaren auto identifikazio kritikoa sustatuko da.

Kylmickaren (2004) proposamenari jarraituz, tokian tokiko kulturartekotasunaren alde egingo dugu:

- 1) Ugaritasun kulturala onartuz eta ezagutuz.
- 2) Talde bakoitzak egindako ekarpenak aitortuz (hizkuntzari eta kulturari bereziki erreparatuz).
- 3) Parekotasun soziala babestuz. Tokian tokiko kulturartekotasunetik abiatuz, kulturartekotasun kosmopolita erdiestea da xedea.

Beraz, gai izan beharko genuke gure erosotasun maila gainditzeko, enpatia garatzeko, estereotipo eta aurreiritziak zalantzan jartzeko, gure muga pertsonala handitzeko eta gero eta globalizatuago den munduan kulturen arteko elkarreragiketa gauzatzeko.

Minor honetan, elkarbizitza eta kulturartekotasuna sustatzeko behar-beharrezkoak diren gaitasunak landuko dira. Alde batetik, besteari entzun eta aditu, besteekin enpatia izatea eta besteak onartu. Bestetik, iritziak, jarrerak, gertaerak kuestionatu eta gatazkak kudeatzen ikasi behar da. Honen bitartez, irakaskuntza-ikaskuntza esparruan elkarbizitzarako espazio eta mezu berriak sortu ahal izango dira.

3.3 Minorreko ikasgaien deskribapen laburra

3.3.1 Kulturarteko Hezkuntzarako Baliabideak eta Estrategia Didaktikoak

Ikasgai honetan, kulturartekotasuna bultzatzen laguntzeko irakasle trebatua, arduratsua eta erreflexiboa izaten ikasteko hainbat baliabide eta estrategia didaktiko landu eta aztertuko dira. Horretarako, norbanakoen bizipenak eta esperientzia praktikoak bultzatuko dira, baliabide eta estrategia desberdin batzuk aurrera eramanez eta hauen inguruko hausnarketa eginez.

Gaitasunak:

1. Haur eta Lehen Hezkuntzako kulturartekotasuna bultzatzeko esperientzia berritzaileak ezagutzea eta aplikatzea.

2. Kulturarteko proiektu hezitzaileak garatzea eta ebaluatzea, baliabide eta metodologia didaktiko egokiak erabilia, ikasle guztiek ahalik eta gaitasun gehien lortzeko.
3. Bakarkako lana, lankidetzak, diziplina, konstantzia, eta pentsatzeko gaitasuna sustatzea, batak bestearen lana aitortzeko, pertsonen garapen emozionala eta integrala sustatuz.
4. Ikasleen parte-hartze aktiboa eta arduratsua sustatzea, baita ikasgelako eta ikasgelatik kanpoko bizikidetzak ere; arazoak eta gatazkak lankidetzan konpontzea lagunduz.
5. Pentsaera kritikoa eta argumentatzeko gaitasunak garatzea, kulturartekotasunaren ikuspuntutik erabaki arduratsuak hartzen laguntzeko eta arazoei konponbideak bilatzen ikasteko.

3.3.2 Kulturartekotasuna Eskolan

Ikasgai honetan, eskola eremuan kultura aniztasunak dituen zehaztasunak ezagutu eta aztertuko dira. Horrela, eskola baten dimentsio maila ezberdinei arreta jarriko zaie: eskola antolakuntza, ikaskuntza prozesuak, parte-hartzean duten agenteen begiradak; hala nola, ikasleak, familiak, irakasleak-hezitzaileak edo bestelako langileak, dauden baliabideak, gatazkak eta ongizatea.

Gaitasunak:

1. Kulturarekiko eta honek eskolan hartzen dituen dimentsioekiko begirada kritikoa eta sakona garatzea.
2. Egungo eskola egoerak ezagutzea. Kultura anitzeko testuinguruetan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako errealitateak ezagutzea eta esku-hartzeko eremuak identifikatzea.
3. Trebetasun sozialak garatzea, familiak eskolaren arteko harremana indartzea eta lankidetzan aritzeko. Parte-hartzeko erraztasunak sortzea.
4. Gatazken aurrean norberaren lekua ezagutu eta kudeaketarako tresnak eskuratzea.

5. Ikastetxeko hezkuntza-testuingurua aztertzea, irakaskuntza-jarduera eta ikasgelako ikaskuntza diseinatzeko, antolatze eta ebaluatze.

3.3.3 Kulturartekotasunaren Komunitate Dimentsioa

Kulturartekotasunaren dimentsio komunitarioan, gizabanakotik haratago dauden errealitateak abiapuntu moduan hartu ondoren, migratzaileek euren gizarte berrietan moldatze aldera garaturiko esperientziak jorratuko dira. Beste herri batean bizitzeak baditu bere erronkak eta horien artean aipagarriak dira erbestea, herrimina, deserriratzea talka kulturala, neke kulturala eta Ulisesen sindromea, besteak beste. Errealitate horien ondorio negatiboak saihesteko asmoz, gizabanakoek euren herri eta kultura kideekin batera hainbat estrategia garatu ohi dituzte, elkarteak eta diasporak sortuz. Fenomeno hauek aztergai izango ditugu, eta bereziki, errealitate hauek hezkuntzarekin duten harremana eta berorri planteatzen dizkioten erronkak eta aukerak izango ditugu aztergai. Aipaturiko gaiak jorratzeko asmoz, kulturartekotasunaren eraikuntzan ari diren elkarte eta eragileen partaidetza izango dugu gure ahaleginean laguntzeko. Beharrezkoa izango da entzute eta partaidetza aktiboa, hausnarketa burutu eta aurreikusitako gaitasunak garatu ahal izateko.

Gaitasun orokorrak:

1. Jakintza alor ezberdinetan eskuratutako gaitasunak harremantzeko gai izatea, testuinguru kulturantzunetan ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen konplexutasuna ulertzeko.
2. Kultura-aniztasuna kudeatzeko eta kulturartekotasuna bultzatzeko eragileen lana eta proposamenak ezagutzea eta zeresan handiko gaiak identifikatzea, gizarte-erakunde publiko eta pribatuak duten inplikazio praktikoei dagokienez.
3. Ikastetxeko hezkuntza-testuingurua kritikoki aztertze gai izatea, inguru sozial kulturantzunaren berezitasunei erreparatuz.
4. Esku-hartze zehatzetako indargune zein ahulguneak identifikatzea, kudeatzea eta arautzea aniztasun-testuinguruetan, hiritartasun aktiborako hezkuntza

demokratikoaren balioak osatzen eta eusten dituzten genero hezkuntzari, zuzentasunari eta giza eskubideekiko errespetuari erantzunez.

Gaitasun espezifikoak:

- Migrazio prozesua abiatzeko faktoreak ulertzea.
- Migratzaileek garaturiko nortasun kolektibo askotarikoak ezagutzea.
- Kultura-talka, kultura-nekea eta Ulisesen Sindromea ezagutu eta horiek gainditzeko elkarleen balizko abantailez hausnartzea.
- Komunitate zein eragile kultural desberdinak ezagutzea.

3.3.4 Kultura Arteko Hezkuntzarako Hezkuntza Politikak

Kultura Arteko Hezkuntzarako Hezkuntza Politikak irakasgaiaren bitartez, ikasleek kultura-aniztasuna terminoaren jatorria eta ondorioak eta kultura anitzeko gertakariaren jatorria eta oinarriak ezagutuko dituzte. Gainera, planteatuko diren jarduera ezberdinen bitartez, etorkizuneko irakasleek kultura arteko hezkuntzari erantzuna ematen dioten nazioarteko, Europako, Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko politikak ezagutzeko aukera izango dute, arreta berezia jarritz immigrazioari ematen zaion hezkuntza-erantzunean eta diskriminazioaren aurkako borrokan. Hori gauzatzeko, funtsezkoa izango da une eta testuinguru ezberdinetako politikak aztertzea eta baloratzea, betiere ikasleen gogoeta eta parte hartze aktiboa sustatuz.

Gaitasunak:

1. Kultura-aniztasuna, kulturartekotasuna eta migrazio fenomenoak ikuspegi historiko, sozial, politiko eta ekonomikotik ulertzea.
2. Kulturarteko hezkuntzarako nazioarteko hezkuntza-politikak ezagutzea eta aztertzea.
3. Europako Kontseiluak eta Europar Batasunak kulturarteko hezkuntzaren sustapenean eta hezkuntza eremuan diskriminazioaren aurkako borrokan duten zeregina ezagutzea eta aztertzea.
4. Ikasle etorkinen inklusioa sustatzera bideratutako Espainiako hezkuntza-politikak ikertzea eta ebaluatzea, araudiak, eskolatze programak/estrategiak eta aniztasunari

arreta emateko neurriak aztertuz.

5. Gizarte eta kultura arteko trebetasunak garatzea, norberaren ahalegina eta hausnarketa-gaitasuna baliatuz, lankidetzan ekarpenak egiteko.

3.3.5 Fundamentos Teóricos de la Educación Intercultural

Esta asignatura es impartida por dos departamentos. Durante las 5 semanas que corren a cargo del Departamento de Didáctica de las Ciencias Sociales, se tratan conceptos clave para la comprensión de los fenómenos interculturales (cultura, diversidad cultural, identidad, relaciones culturales simétricas-asimétricas, asimilación, aculturación, subordinación, coexistencia, convivencia, integración, inclusión, etc.). Posteriormente, se realizará un acercamiento a los procesos interculturales desde el prisma de los Derechos Humanos Universales, para generar una opinión formada sobre los logros, los retos, las dificultades... que se generan en la interacción cultural y que se manifiestan recurrentemente en enconadas polémicas que afectan al mundo educativo. Estas discusiones serán la base para introducir un cambio de paradigma que posibilite concebir la interculturalidad como un valor positivo con sus incontables ventajas frente a una sociedad uniforme y etnocentrista. Además, examinamos detenidamente el Curriculum Educativo vigente en la Comunidad Autónoma Vasca y su tratamiento a la diversidad cultural. Así, analizaremos los objetivos y contenidos de la Competencia Social y Cívica relacionados y su materialización en diferentes recursos didácticos (libros de texto, TIC...). Por último, acometeremos un proceso de descolonización del currículo desde las Ciencias Sociales, que posibilitará superar visiones y actitudes eurocéntricas, xenófobas, racistas... muy estereotipadas, resaltando las aportaciones de otras culturas al avance de la Humanidad.

El resto de las 10 semanas las impartirá el Departamento de Didáctica de la Lengua y de la Literatura. En este caso, se propone una inmersión en el aula, lugar donde se dan las interacciones entre docentes y alumnado, donde se trabaja con materiales concretos y donde se desarrollan el curriculum académico y el curriculum oculto. Para ello, se trabajarán cuestiones como la construcción de la identidad, las percepciones que el profesorado tiene sobre otras culturas y lenguas, el tratamiento educativo de la

diversidad lingüística y cultural y el reflejo de ello en los libros de texto. Así, nos vamos a centrar en la identidad lingüística y cultural del alumnado, y propondremos un enfoque metodológico innovador que contribuya a la ecología multilingüe y multicultural de nuestras aulas. Asimismo, nos sumergiremos brevemente en los fundamentos de la educación antirracista y tendremos también oportunidad de trabajar nuestros propios prejuicios y suposiciones para poder iniciar un proceso de deconstrucción.

La asignatura se imparte en castellano.

Competencias:

1. Analizar de forma crítica el significado del término “cultura” en sus distintos usos e intenciones.
2. Conocer los fundamentos deontológicos del quehacer docente para abordar situaciones escolares multiculturales.
3. Comprender y valorar la pluralidad lingüística/cultural como riqueza e instrumento para el aprendizaje y la inclusión social.
4. Comprender y valorar la dimensión cultural del conocimiento científico, de otro tipo de conocimiento y del curriculum como elemento de inclusión de los alumnos de origen multicultural.

3.3.6 Proiektu espezifikoen kudeaketa

irakasgaiaren helburua da hezkuntza-eremuan kultura-artekotasuna sustatzeko aukerak identifikatzea eta era berean, eskola komunitatearen errealitatea ezagutu, interpretatu eta ulertzearen garrantziaz jabetzea, eskolan kultura-artekotasunaren bidean aurrera egite aldera. Helburu hori lortzeko, talde bakoitzak, eskola-komunitate zehatz bat behatu eta sakonki ezagutzeko tarte hartuko du, edota, hezkuntza-komunitatean kulturartekotasuna lantzeko garrantzitsua den gai baten identifikazioan eta beronen inguruko ezagutza sakonari ekingo dio. Lehenik beraz, eskola-komunitatean egon daitezkeen behar zehatzak identifikatuko dira, lehen eta bigarren mailako iturriak erabiliz, eta egindako behaketa edota ikerketa txikiaren ebidentziak jasoz.

Ondoren, Garapen Lankidetzako Elkartek baten eskutik, ikasleek, proiektuen diseinu eta plangintzarako funtsezkoak diren arazo eta helburuen zuhaitzaren tresnak erabiltzen ikasiko dute. Plangintza tresna hauetarako, arazoen eta beharren identifikazioan trebatuko dira, eta identifikatutako beharrari konponbidea emateko, eskola komunitateari laguntzera bideratua egongo den kulturartekotasuna sustatzeko proiektu bat diseinatu eta planifikatuko dute. Alegia, kulturartekotasuna sustatzeko lagungarria izan daitekeen esku hartze bat, ikas-egoera edota ikas-material bat diseinatuko da, lan autonomoa eginez eta irakaslearen laguntzaz. Garatutako proiektua idatziz jasoko da eta ahozko aurkezpenaren bidez defendatuko da.

Gaitasunak:

1. Jakintzak Integratzea: Ikasleek minorreko irakasgaietan eskuratutako jakintzak integratzea, kultura anitzeko testuinguruetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen konplexutasuna ulertzeko.
2. Hezkuntza Testuinguruaren Azterketa: Ikastetxeko hezkuntza-testuingurua aztertzea.
3. Kulturarteko esku-hartzeak diseinatzea eta aurkeztea. Aniztasun-testuinguruetan kulturartekotasuna sustatuko duten irakaskuntza-ikaskuntza ekimenak diseinatzea, hezkuntza demokratikoaren balioak sustatuz, irakasle-hezitzaile zein aktorekin lankidetzan.

3.4 MINORKULT Jardunaldiak

Minor honetan aurkituko dituzuen berezitasunen artean, aparteko aipamena egingo diogu jardunaldien antolaketari. Urtero, minorreko irakasleen artean Minorkult jardunaldiak antolatzen dira, eta aurtengoa 14. edizioa izango da. Jardunaldi hauetan, kulturartekotasunaren idealari jarraitzen dion hezkuntza eta formakuntza uztartzen dituen eremu akademikoan sakontzen jarraituko dugu. Bertan aditu eta arituek euren esperientziak eta kezak partekatuko dituzte. Ahalegin honetan erakundeetako ordezkariak, teknikariak, Gobernu Kanpoko Erakundeak, eskolak eta elkarte ezberdinek parte hartzen dute. Esperientzia honek ikasleen formakuntzan sakontzeko aukera eskaintzen du, eta gure minorra aberasten du, gizarte aktore ezberdinen ekarpenak posible eginez.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aime, M. (2016). *Contra el Racismo, Cuatro Razonamientos*. Barcelona: Economía Digital.
- Almendra, J. C. (2015). La importancia de la interseccionalidad para la investigación feminista. *Oxímora. Revista internacional de ética y política*, (7), 119-137.
- Antón, C., Aparicio, R., García, R. Y Migallón, J. (2015). *Manual de Apoyo para la Prevención y Detección del Racismo, la Xenofobia y Otras Formas de Intolerancia en las Aulas*. Madrid: Observatorio español del racismo y la xenofobia.
- Banks, J. A. (2004). Teaching for social justice, diversity and citizenship in a global world. *The Educational Forum*, 68(4), 296-305.
- Bela-Lobedde, D. (2021). *Ser mujer negra en España*. Barcelona: Penguin.
- Bela-Lobedde, D. (2023). *Ponte a punto para el antirracismo. Consejos útiles para iniciar la alianza antirracista*. Penguin Random House. Barcelona.
- Bellagamba, L. R. (2022). *Qué es la interseccionalidad y por qué te importa saberlo*. BID Mejorando Vidas.
- DiAngelo, R. (2018). *Fragilidad Blanca*. Madrid: BAAM.
- Diop, C. A. (2012). *Naciones negras y cultura*. Barcelona: Edicions Bellaterra.
- Diop, C. A. (2016). *Civilización y Barbarie*. Barcelona: Edicions Bellaterra.
- Eddo-Lodge, R. (2021). *Por qué no hablo con blancos sobre racismo*. Barcelona: Península.
- Essomba Gelabert, M. À., Guardiola Salinas, J., & Pozos Pérez, R. V. (2019). Alumnado de origen extranjero y equidad educativa. Propuestas para una política educativa intercultural en España hoy. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 33(2).
- Espelt, E. (2009). *¿Somos racistas?* Barcelona: Icaria.
- Esteban-Guitart, M., Rivas, M. J., eta Pérez, M. R. (2012). Empatía y tolerancia a la diversidad en un contexto educativo intercultural. *Universitas Psychologica*, 11(2), 415-426.

- Fanon, F. (1970). *Piel Negra, Máscaras Blancas*. España: Editorial Nova
- Gasteizko Udala. (2015). *Migrazioak eta terminoen zehaztasuna: migrazioen inguruko kontzeptuak hobeto erabiltzen laguntzeko gogoetak*. Gasteizko Udala.
- Gerehou, M. (2021). *Qué hace un negro como tú en un sitio como este*. Barcelona: Planeta.
- Guerrero Romera, C. (2012). Hacia la construcción de procesos y prácticas “exclusivas”: Metodologías para la intervención. *Quaderns d'animació i educació social*, 16.
- Ki-Zerbo, J. (2011). *Historia del África Negra*. Barcelona: Edicions Bellaterra.
- La Barbera, M. (2016). Interseccionalidad, un “concepto viajero”: orígenes, desarrollo e implementación en la Unión Europea.
- Leclerc, G. (1973). *Antropología y Colonialismo*. Madrid: Comunicación.
- Maalouf, A. (2005). *Identidades asesinas*. Madrid: Alianza Editorial.
- Peñalva Vélez, A. eta Leiva Olivencia, J. J. (2019). Metodologías cooperativas y colaborativas en la formación del profesorado para la interculturalidad. *Tendencias Pedagógicas*, 33, 37-46. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6828732>
- Peñalva Vélez, A., & Leiva Olivencia, J. J. (2019). La interculturalidad en el contexto universitario: necesidades en la formación inicial de los futuros profesionales de la educación. *Educación*, 55(1), 0141-158. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7591169>
- Quezada-Carrasco, P., Valdebenito Zambrano, V., & Quintriqueo Millán, S. (2022). Interculturalidad en la Educación Técnica Profesional: Tensiones y Desafíos para su Implementación. *Revista de estudios y experiencias en educación*, 21(47), 387-409.
- Rodríguez, E. eta Iturmendi Vicente, A. (2013). *Igualdad de género e Interculturalidad: Enfoques y estrategias para avanzar en el debate*. “Atando cabos, Deshaciendo nudos”, Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo (PNUD). p 47. https://iknowpolitics.org/sites/default/files/atando_cabos_may30.pdf
- Saad, L. F. (2021). *Yo y la supremacía blanca*. Grijalbo.
- Thuram, L. (2023). *El pensamiento blanco*. Libros Cúpula.
- Vigoya, M. V. (2016). La interseccionalidad: una aproximación situada a la dominación. *Debate feminista*, 52, 1-17.

BALIABIDEA, MATERIALAK eta INFORMAZIO GEHIGARRIA:

Afrofeminas. (*Interseccionalidad: definición, historia y guía*. AFROFÉMINAS.
<https://afrofeminas.com/2023/05/11/interseccionalidad-definicion-historia-y-guia/>

Ikuspegi (Immigrazioaren Euskal Behatokiak). (n.d.).
<https://www.ikuspegi.eus/es/quienes-somos/>

Ngozi Adichie, C. (2009). *The power of a single story* [Bideoa]. TedTalk.
https://www.ted.com/talks/chimamanda_ngozi_adichie_the_danger_of_a_single_story?language=en

Zurumurruen aurkako materiala:

<https://zas.eus/materiales-y-herramientas/a-hombros-de-gigantes/>

<https://zas.eus/materiales-y-herramientas/desmontando-rumores/>

<https://zas.eus/materiales-y-herramientas/coleccion-ustek-ustel/>

PODCAST-A

No hay negros en el Tibet.